

# 7-FUNTSEZKO BALIABIDEAK

**Balio-proposamen erakargarri** bat egiteko eta eskaintzeko, **bezeroarengana iristeko** eta **diru-sarrerak lortzeko**, hainbat motatako baliabideak behar ditugu; fisikoak, intelektualak, giza-baliabideak eta finantza baliabideaj.

## BALIABIDE MOTAK

### BALIABIDE FISIKOAK

#### Instalazioak

Gure instalazio bakarra **denda fisikoa** izango da. Bertan, gure hornitzaileen produktuak jasoko ditugu, eta dendan dagoen biltegi batean gordeko dira. Bestalde, dendan, jasotako produktuak jarriko ditugu bezeroen agerian.



#### Ibilgailuak

**Correos Express**-en bidez, interneteko webgunetik erosten duten bezeroek eta denda fisikoan produktua jaso nahi ez dutenek jasoko dituzte produktuak.



### BALIABIDE FISIKOAK (II)

#### Salmentarako puntuak

Salmenta puntuak, daukagun **denda fisikoa** eta **web orrialdea** izango dira. Bertan gure produktuak salduko ditugu eta bezeroen beharrak asetuko ditugu.



#### Banaketa sarea

Bezeroak produktuak utziko dizkigute eta produktu horiek biltegi batean gordeko ditugu eta, beraz, pertsona batek produktu bat eskatzen digunean edo gure web orrialdean produktu bat erosten duenean, **biltegitik** eskatutako produktu **hartu** eta bilduko dugu, kalterik jasan ez dezan. Ondoren, bezeroak pertsonalki jasoko du produktua edo **Correos Express-en** bidez bidaliko diogu, web orrialdetik eskatzen badu.



## Makinak

Bezeroek guri produktuak ematean, dagozkien **bonoak jasotzeko makina** bat edukiko dugu, edota ordaintzeko **datafonoak**. Horren bidez, denbora aurreztuko dute.



## Bulegoa

Berez ez dugu bulegorik edukiko. Hala ere, dendaren zati batean **gela itxurako bat** dago non elkartuko garen salmenta, produktu eta enpresaren inguruan hitz egiteko.



## Sistema informatikoak

Sistema informatikoei dagokionez, ordenagailuak izango dira gehien erabiliko ditugun gailu elektronikoak. Dendan egongo dira eta bertatik web orrialdea maneiatuko dugu, sare sozialak meniatuko ditugu eta bezeroen kexei arreta jarriko diegu. Bestetik, produktu berrien argitarapena eguneratuko dugu.



Marka



Elkarteak

Izango dugun elkarte bakarra Alde Zaharreko merkatarien elkarte izango da eta haiekin gure enpresa ezagutaraziko dugu. Modu horretan haiekin, koopetentzia lortuko dugu, alde zaharrean denda asko daudelako eta gure lehiakideak izan daitezkeelako, eta bestetik, gure moduko enpresaren bat egotekotan, haiekin elkartu gaitzke gure ideiak partekatzeko eta proiekturen bat batera eramateko.



Giza-baliabideak


Organigrama honen bidez enpresan zuzenki eta zeharki parte hartzen dugun pertsonak zehaztu ditugu.



Finantza-baliabideak

**Kreditu-lineak**

Gure enpresarekin hasteko bankuari mailegu bat eskatuko diogu eta guk ere dirua jarriko dugu. Lehenengo lokala alokatuko dugu oinarri bat izateko eta lokala guztia bete eta gero gure enpresa ezaguna izateko lankidetzak egingo ditugu.



## Datu baseak

Dendan dauzkagun ordenagailuen bidez, bezeroen inguruko datuak jasoko ditugu. Modu horretan, arazoren bat egotekotan haiekin azkar jarriko ginateke kontaktuan, eta gure enpresaren dohainezko harpidetza proposatu genezake bezeroarekiko harremana estuagoa izan dadin.

Jotform Tables Plantilla para Base de Datos de Clientes [Share](#)

Base de Datos de Clientes [View This Form](#)

Search Filter Form

	T Nombre	T Nombre de la Em...	T Puesto a cargo	T Departamento	D Dirección de la Emg
1	Eugen Almaraz	Opti-Tek	Preparador de Equipo Médico	Profesiones de asistencia sanitaria	4220 Hemlock Lane Si
2	Penelope Cerda	Advanced Teksystems	Empleado de Procesamiento de...	Aseguradora	1818 Stanley Avenue Ni
3	Libe Lara	Expresso	Operario de Máquina de Dibujo	Preparador de Equipo Médico	434 Reilbud Drive San
4	Diana Montalvo	Judy	Reactor Mecánico	Producto	4939 Cody Ridge Road
5	Yareko Paz	Argus Tapes & Records	Guardabosque	Profesiones de producción	2418 Hidden Meadow
6	Emeterio Esperza	Gamma Realty	Lava platos	Preparación y Servicio de comida	3823 Punglove Court I

## Eskudirua

Behar ditugun materialak erosteko eta langileen soldatak ordaintzeko eskudirua erabiliko dugu. Dendan produktuak berrizteko materialak eta denda osatzeko materialak erosi beharko ditugu.

